

Bayona-n 1961 bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Irigaray, Villasante, Arrue, Mitxelena, Lafitte, Dassance, Eppherre, eta Krutwig jaun euskaltzainak. San Martin, Anai Berriotxoa, Loidi, Zaitegui, Narbaite, Eyheramendy jaun urgazleak eta beste entzule asko. Aita Ignacio Larrañaga Pinglieng-go apezpikuak ezin etorria adierazo dau.

Aurrerago "Euskal Kutluraren Alde" eta "Ikas"-ekoak prestaturik egindako itzaldia jarraiturik Luis Mitxelena jaunak irakastearen gainean berba egin dau eta erderatiko euskal-itzak be ontzat artu bear doguzala izkuntzea eskastu eta indarga itxi eztaigun gura badogu oiñarritzat artu dau.

Ostean Aita Villasante-k egin dau itzaldia: "Euskal eskola nola ematen dedan". Eta berak aurkitu dituen ostopoak eta artu dauen bidea azaldu ditu.

Zaitegui jaunak aurkeztu ditu.

Eta beste barik amaitu da.